



Datuak Babesteko
Euskal Bulegoa
Agencia Vasca de
Protección de Datos



LANKIDETZA-HITZARMENA DATUAK BABESTEKO EUSKAL BULEGOAREN ETA SOCIEDAD INFORMATICA DE LA SALUDEN ARTEAN

Madriren, 2007ko martxoaren 7an

BILDU DIRA

Alde batetik, Luciano Sáez Ayerra jn., NAN 51.601.217 duena, Sociedad Española de Informática de la Salud (aurrerantzean, SEIS) elkartearen lehendakaria. Elkartearen IKF G 78.339.926 da, eta Enrique Larreta nº 5, 28036 Madrid du helbidea; lehendakariak, Elkartearen Estatutuetan ematen zaizkion eskumenak betez, eta haren ordezkari gisa.

Eta beste aldetik, Iñaki Vicuña de Nicolás jn., Agencia Vasca de Protección de Datos - Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren (aurrerantzean, DBEB) lehendakaria, Bulegoaren ordezkari gisa, otsailaren 25eko 2/2004 artikuluan ezartzen diren eskuduntzekin bat etorrita izendatu baitzuten 83/2004 Dekretuaren bidez (2004ko maiatzaren 14ko EHAA, 90 zk.).

Bi aldeek jardun dute beren erakundeen izen eta ordezkaritzan, eta elkarri aitortu diote honako lankidetzaren hitzarmen hau sinatzeko lege gaitasuna, eta

ADIERAZI DUTE

- I. Sociedad Española de Informática de la Salud zientzia-elkartea dela, irabazi asmorik gabekoa, osasun arloan Informazio eta Komunikazio Teknologia hobetu eta horien erabilera areagotzeko interesa duten bostehun teknikari eta osasun-profesional baino gehiagoz osatua; halaber, informatika, medikuntza, erizaintza, farmazia, albaitaritza, psikologia eta Osasun Zientziaren bestelako profesionalen zein arlo horietako ikasleen foroa dela elkartea.
- II. Azken urteotan Elkarteak garatu dituen jarduera eta proiektuen artean honakoak nabarmendu daitezkeela: Osasun-informatikaren



Datuak Babesteko
Euskal Bulegoa
Agencia Vasca de
Protección de Datos



nazio-biltzarra (INFORSALUD), urtero egiten dena, eta arlo berezituetakoko beste nazio-biltzar batzuk, hain zuzen ere, INFOFARMA (Informatika eta Farmaziako nazio-biltzarra), INFORENF (Informatika eta Erizaintzako nazio-biltzarra) eta Bioinforsalud (Bioinformatika, Informazio Genetikoa eta Osasunari buruzko nazio-simposiuma); eta, horrez gain, Osasun-informatikako Jardunaldiak Andaluzian eta Telemedizina, Datuen Babesa, Teknikoa eta Normalkuntza Foroak.

III. Otsailaren 25eko 2/2004 Legeak, Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzkoak, 10.1 artikuluan, dio Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzen dela, eta Zuzenbide publikoko entea izango dela, nortasun juridiko propioa eta gaitasun publiko eta pribatu erabatekoa izango dituen, eta herri-administrazioekiko inongo loturarik gabe beteko dituela bere eginkizunak. Honakoak dira, nagusiki, Bulegoaren eginkizunak:

- Datuak babesteko legeak bete daitezzen zaintzea eta nola aplikatzen diren kontrolatzea, batez ere informaziorako eskubideari eta datuetara iristeko, datuak zuzentzeko, datuen aurka egiteko eta datuak indarririk gabe uzteko eskubideari dagokienez.
- Lege eta erregelamenduetan zehazturik dauden baimenak ematea, eta, hala badagokio, datuen tratamendua datuak babesteko indarrean dagoen legediko printzipioetara egokitzeko beharrezko jarraibideak ematea, beste erakunde batzuen aginpideei ezer kendu gabe.
- Tartean direnen eskariei eta erreklamazioei kasu egitea. Datu pertsonalak tratatzea dela-eta dituzten eskubideei buruzko informazioa ematea pertsonari.
- Ikuskatzea eta, hala badagokio, zehatzeko ahalmena erabiltzea
- Datu pertsonalen fitxategiak badirela gauza jakinekoa izan dadin zaintzea.
- Funtzio estatistiko publikoari buruzko xedapenak betetzen direla zaintzea.
- Herri-administrazioek, erakundeek eta korporazioek datu pertsonalen babesari buruz egiten dizkioten galderari erantzutea, eta datu pertsonalen tratamenduari buruz beste pertsona fisiko edo juridiko batzuek egiten dizkioten galderari erantzutea.



Datuak Babesteko
Euskal Bulegoa
Agencia Vasca de
Protección de Datos



- IV. Aipatutako 2/2004 Legearen 2.1 a) artikuluan ezarritakoaren arabera, Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren Osasun Sailak eta Servicio Vasco de Salud-Osakidetza erakunde publikoak zuzenbide publikoko ahalmenak betetzeko sortu edo kudeatzen dituzten datu pertsonaleko fitxategiak DBEBren eskumen-esparrukoak direla.
- V. DBEBak eta SEISek nahi dutela datu pertsonalen babesa, oinarrizko eskubidea dena, ahalik eta gehien hedatzea osasun publikoaren arloko zerbitzuetan diharduten profesionalen edo horiekin zerikusia dutenen artean, bai eta eskubide horrekiko praktika egokiak hartzea ere.

Bi erakundeek badakite beharrezkoa dela elkarrekin lan egitea datuen babesaren arloan, eta horregatik sinatu dute Hitzarmen hau, kontuan hartuta ondoko

ESTIPULAZIOAK

LEHENA. Helburua.

Hitzarmen honen helburua da lankidetzak markoa ezartzea Sociedad Española de Informática de la Salud (SEIS) elkartearen eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren (DBEB) artean.

BIGARRENA. Aldeen obligazioak.

SEISek eta DBEBak elkarrekin arituko dira honako jardueran hauetan:

- Indarrean dagoen Erkidegoko legedia, orokorra eta osasun-arlokoa, datuen babesari buruzkoa, aztertzea.
- Euskadiko osasun-arloan, datuen babesa dela-eta, sortzen diren egoerak aztertzea, baldin eta honako Lankidetzak-hitzarmen hau sinatzen duten aldeen arreta eta erantzuna eskatzen badute.
- SEISeko adituek egindako artikulak argitaratzea DBEBaren web orrian (www.avpd.es).



Datuak Babesteko
Euskal Bulegoa
Agencia Vasca de
Protección de Datos



- DBEBaren adituek egindako artikulua argitaratzea I+S aldizkarian (SEISek argitaratzen du).
- Euskal Autonomia Erkidegoko osasun-arloko profesionaleri zuzenduriko jardunaldiak edo ekitaldiak, datuak babesteko oinarritzko eskubidea zabaltzekoak, antolatzea.
- Bi sinatzaileen hedabideen bidez (bereziki SEISen www.seis.es eta I+S, eta www.avpd.es/) erakunde horiek egiten dituzten ekitaldiei buruzko prentsa-oharrak argitaratzea.
- Osasunarekin eta datuen babesarekin zerikusia duten argitalpenak egiteko eta zabaltzeko lankidetzak.
- Euskal Autonomia Erkidegoko osasun-sistema publikoan diharduten SEISeko partaideei aholkularitza eskaintzea, datu pertsonalak babesteko oinarritzko eskubideari buruzkoa.
- Bi aldeek dituzten "Agiri-fondoetara" sartzeko bidea ematea, baldin eta legeak horrela ahalbidetzen badu.

- SEISeko partaideek praktikak eta ikerketak egitea DBEBan. DBEBak tutore bat izendatuko du, SEISeko partaideen lana koordinatuko duena, eta horiek baloratuko ditu, bai eta balorazioaren berri SEISi eman ere. Bestalde, praktikak eta ikerketa horiek egiteko behar den material guztia emango du. Hala ere, lan horiek ez dira diruz sarituko, eta erantzukizun zibila SEISena izango da.
- Zientzia-ikerkuntza eta teknologia-garapena sustatzea osasun-arloko I+G+B programen esparruan, betiere datuak babesteko indarreko legediaren arloan.
- Servicio Vasco de Salud-Osakidetzan gerta litezkeen datuak babesteko arloko praktika egokiak identifikatzea.



Datuak Babesteko
Euskal Bulegoa
Agencia Vasca de
Protección de Datos



HIRUGARRENA. Koordinazioa eta Jarraipen-batzordea.

Lankidetzeta-hitzarmen honetako lankidetzeta jarduerak bultzatzearen, Jarraipen eta Koordinazio Batzordea eratuko da, erakunde bakoitzeko bina ordezkariak osatua. Batzordea urtero bildu ahal izango da, bi erakundeen jarduera koordinatzearen, baina hala behar izanez gero, aldiro-aldiro bildu ahal izango da.

Jarraipen eta Koordinazio Batzordearen bileretan bi aldeek egindako jarduera, lortutako emaitzak eta hobekuntza proposamenak aztertuko dira.

Bilera guztietan jasoko du akta Batzordearen idazkariak, zein izendatuko baitute bi aldeek adostasunez.

Jarraipen eta Koordinazio Batzordeak erabaki ahal izango du laguntza-taldeak sortzea. Talde horiek erdibana osatuko dituzte alde bakoitzak izendatutako aholkulari eta adituek.

LAUGARRENA. Diru-ekarpenak.

Honako Hitzarmen hau sinatzeak ez dakar berekin gasturik. Hala ere, hitzarmena garatzearen aldeetako batek edo biek dirua jarri beharko balute, diru kostu horiek eta bakoitzak zenbat jarri bi aldeek, adostasunez, erabakiko dute, Jarraipen Batzordearen bitartez.

BOSGARRENA. Hitzarmenaren iraupena eta hitzarmena suntsitzeko arrazoiak.

Honako Hitzarmen hau indarrean sartuko da sinatzen den hurrengo egunean, eta hala iraungo du aurtengo abenduaren 31 arte. Urtero luzatuko da, automatikoki, bi aldeetako batek salatzen ez badu. Halakorik gertatuz gero, jakinarazi eta hilabetera izango dira ondorioak.



Datuak Babesteko
Euskal Bulegoa
Agencia Vasca de
Protección de Datos



Hitzarmena sinatu duten aldeentzat suntsitzeko arrazoiak dira hitzarmeneko klausulak ez betetzea, salatzea eta beste edozein, baldin eta legedian aurreikusita badago.

Ados daudela erakusteko, bi aldeek sinatzen dute honako Lankidetzeta-hitzarmen honen bi kopia, goiburuan adierazitako tokian eta egunean. Aldeek kopia bana jasoko dute.

Iñaki Vicuña de Nicolás

Agencia Vasca de Protección de Datos-
Datuak Babesteko Euskal Bulegoa

Luciano Sáez Ayerra

Sociedad Española de Informática de la
Saluden lehendakaria